

2025 MEMORIA



AURKIBIDEA

1	NOR GARA	3
2	GAUDE ZENBAKITAN	4
3	BABES—EREMUAK	5
	Laguntza-magnitudeak	5
	Babesa familiei	6
	Psikologia	6
	Eguneko Arreta Zentroak	7
	Zentro okupazionalak	8
	Etxebizitzak	9
	Prestakuntza eta Enplegua Laguntzarekin - CIVIS	10
	Aisialdia	11
	Boluntarioria	12
4	PROIEKTUAK	13
	Zahartze aktiboa: BIZIKI	13
	Bizitza independentea	14
	Maitasunez Eginak	14
	Sare berdeak ehuntzen	14
5	KONPROMISOAK	15
6	2025AN	16
7	GURE ERAGINA	17
8	ALIA NTZAK	18

1 NOR GARA DUINTASUNA ERAIKITZEN

2025
MEMORIA

● Zeregina


“**Konpromiso etiko** batetik, **laguntza eta aukerak** emanda, adimen-desgaitasuna duen **pertsona bakoitzak eta haren familiak bizi-kalitateko euren proiektua** garatzeko aukera izan dezaten laguntzea, **bidezkoagoa** eta solidarioagoa den gizarte batean eskubide osoz herritar gisa **gizarteratzea** sustatuta”.



● Ikuspegia

Pertsona bakoitzak eta bere familiak zentzuzko bizitza lortze aldera, gizartean oso-osorik murgilduta, aukerak sortzen dituen eta gizarte etikoari balioa ematen dion erakunde bat gara.

● Gobernu-organoak




*adimen desgaitasuna duten pertsonak

2 GAUDE ZENBAKITAN

2025
MEMORIA

● Pertsonen zifra nagusiak


339
pertsona eta
haien familiak




142
profesional


53
boluntario


433
bazkide


+145
laguntzaile

● Datu ekonomikoak



3 BABES—EREMUAK

2025
MEMORIA

● Laguntza-magnitudeak

EMAKUMEAK GIZONAK

Eguneko Arreta

Andra Mari E.Z.*	5	6	11
Barrika E.Z.	10	13	23
Monte Ikea E.Z.	8	3	11

Okupazionala

Donibane Z.O.*	41	29	70
Mendiondo Z.O.	3	16	19

Etxebizitza

Belauste etxebizitza	10	10
Gobela etxebizitza	8	8
Santa Ana etxebizitza	8	8

CIVIS

Lan - Prestakuntza	36	26	62
Lan - Orientazioa	30	32	62
Enplegua laguntzarekin - Prestakuntza	19	15	34

Aisia

77	120	197
----	-----	-----

*Eguneko Zentroa, **Zentro okupazionala.



● Familiak

Zer egiten dugu?

Familia guztiei ematen diegu laguntza, babesarekin eta aukerekin, eta familiaren bizitza-kalitatea eta kide bakoitzaren ongizatea hobetzen saiatzen gara. Familia gisa dituen indargu-neak garatzen laguntzen dugu, eta, horrela, gaitasun- eta bizitzaren gaineko kontrol-sentimendua handitzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?



● Psikologia

Zer egiten dugu?

Pertsonei eta senideei laguntzen diegu bizitzako etapa eta egoera desberdinetan. GAUDEko barneko eta kanpoko laguntza-sarea osatzen duten profesionalekin sarean lan egiten dugu. Oinarritzko eskubideen errespetua eta eredu etikoan oinarritutako bizi-modu duina sustatzen dugu.

Zer nabarmentzen dugu?



● Eguneko arretarako zerbitzua

Zer egiten dugu?

Pertsonen garapen integralera bideratutako laguntzak ematen ditugu, ingurune komunitarioetan parte-hartze aktiboa izan dezaten. Gizarteratzea, eskubideen erabilera eta autodeterminazioa bezalako eremuetan laguntzen dugu, pertsonentzat irisgarriak eta esanguratsuak diren inguruneak sustatuz. Gure konpromisoa pertsona bakoitzari laguntzea da, bere autonomia pertsonala eta bere bizitzaren gaineko kontrola hobetuko dituzten gaitasunak eskuratu eta sendotzeko bidean.

Zer nabarmentzen dugu? →

PARTE—HARTZE AKTIBOA ETA GARAPEN PERTSONALA

- Jardueretan parte hartzen dugu ikastetxeekin batera.
- Kirol-jarduerak egiten ditugu zentroan eta baliabide komunitarioetan, ohitura osasungarriak eta interakzio soziala sustatuz.
- Tratu Onaren Taldeko kide gara, eta tratu txarren egoerak identifikatzen eta sahiesten laguntzen dugu.

INGURURA IREKITZEA ETA IKUSGARRITASUNA

- Topaketa- eta oroitzapen-jardunaldiak antolatzen ditugu zentroarekin lotura duten belaunaldi ezberdinetako pertsonekin
- Praktiketako ikasleen harreraren eta prestakuntzan laguntzen dugu. San Luis Zentroaren errekonozimendua jaso dugu.

ANTOLAKETA HOBETZEA ETA LAGUNTZAK HOBETZEA

- Komunitatean parte hartzea errazteko furgoneta egokitu bat gehitu dugu.
- FEVASen bilera teknikoetan parte hartzen dugu, irisgarritasun kognitiboari, koordinazio soziosanitarioari eta laguntza-teknologiei buruz.
- “Librea eta murrizketak” pilotajearen trebatzen gara, neurri murriztaileekin lotutako praktikak berrikusiz.
- Euskara eta berdintasuna sustatzeko barne-taldeak bultzatzen ditugu.

“Eguneko zentroa oso leku garrantzitsua da niretzat. Hemen babesten gara norbait triste dagoenean, eta elkarrekin ospatzen ditugu une onak, hala nola urtebetetzeak edo antolatzen ditugun jaiak”

Verónica Mato



“Egunero zerbait desberdina egiten dugu. Sukaldaritza tailerra da gehien gustatzen zaidan jarduera. Tailerreko gauzarik onena sortu duguna dastatzea da”

Inés Posada

GORLIZ

BARRIKA

MONTE
IKEA

● Zentro okupazionalak

Zer egiten dugu?

Pertsonen bizi kalitatea, autonomia pertsonala eta gizarteratzea hobetzeko lan egiten dugu, ekoizpen eta garapen pertsonaleko jardueren bidez. Lan ohiturak hartzea, eguneroko bizitzako autonomia, komunitatean parte hartzea eta ongizate emozionala sustatzen ditugu, pertsona bakoitza bere ingurunearen eta talde baten parte aktibo izatea sustatuz.

Zer nabarmentzen dugu?

Pertsonekin eta enpresa ingurunearekin dugun konpromisoa nabarmentzen dugu, ikaskuntza funtzional egokituak garatuz. Gizartearen parte-hartzea bultzatzen duten eta pertsonen interesei erantzuten dieten jardura hauek jarri ditugu abian:

INGURUMENA	NEGUTEGIA	IRTEERAK	JAIK	ERLAXAXIOA
ANIMALIZ LAGUNDUTAKO TERAPIA	BRIKOLAJEA	SUKALDEA	TARTE ONA IGAROTZEKO TAILERRAK	BERDINTASUNEKO PRESTAKUNTZA
ZENTZUDUN LIBURUAK	PULTSERA SOLIDARIOAK	SARE BERDEAK EHUNTZEN PROIEKTUA	YOGA	

Gure lan-jardura hainbat enpresarekin elkarlanean garatzen dugu, azpikontratazio erregimenean, batik bat elektronikaren sektorearekin lotutakoekin.



EGOKI PLANA:

Proiektu hau okupazio-zerbitzuan zahartzen ari diren edota okerrera egiten ari diren pertsonen zuzendutako laguntza-eredu biziagoa da. Prozesu osoan laguntzen diegu pertsonari eta haren familiari, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren laguntzari esker.



DONIBANE

MENDIONDO



“Oso pozik nago Mendiondon. Asko gustatzen zait ezpatak egitea eta lorategia zaintzea”

Alazne Rodríguez



“Oso pozik nago lan asko ikasi ditudalako eta zaratarekin lan egiten ikasi dudalako”

Martín Uriarte

● Etxebizitzak

Zer egiten dugu?

Pertsona bakoitzari bere bizi proiektua garatzen laguntzen diogu, bere nahiak eta interesak betetzen lagunduz, baita trebetasun funtzionalak ikasten ere, bere garapen pertsonalean lagungarri izan daitezen, komunitatean txertatutako etxebizitza batean biziz.

Zer nabarmentzen dugu 2025etik?

BIZITZA PERTSONALAREN ETA ETXEKO BIZITZAREN ALDERDIETAN PARTE HARTZEA

Pertsonen parte-hartzea eta inplikazioa bultzatu ditugu, haien bizitzako alderdi esanguratsuetan ikaskuntza funtzionalak sustatuz:

- Medikazioaren kudeaketa eta etxeke zereginak egitea.
- Hileroko batzarrak, bizikidetzarekin lotutako alderdiak erabakitzeko.

"ERDIAN GAUDE" METODOLOGIA

Berriro jarri dugu martxan pertsonei beren kezka, interes eta desio pertsonaletan laguntzeko metodologia, beren bizi-proiektuari dagokionez, senideen parte-hartzea barne hartuta.

KOMUNITATEAN PARTE HARTZEA

- Espazio publikoak gehiago erabiltzearen aldeko apustua egin dugu, herritarrekin batera, horiekin partekatzen baitugu udalerria. Komunitatean inklusioa bultzatu nahi dugu: Kiroldegia, boluntarioak, kultura etxeak...
- Gertuko udalerrak bisitatu ditugu, gure ingurunea ezagutzeko: Donostiako akuaria, Zugarramurdiko haitzuloak, Kantabria eta bere herriak, Burgos...

BEALUSTE

GOBELA

SANTA ANA

“Oso ondo egoten naiz pisan neskekin, ahal dudan guztietan egiten diren planetan izena ematen dut, eta gehien gustatzen zaidana sukaldaritza egiten dugunean parte hartzea da”

Idoia Izquierdo



“Ia bi urte daramatzat, oso pozik eta gustura nago ikaskideekin eta begiraleekin. Asko gustatzen zait jarduerak, txangoak... egiten ditugulako. Etxe barruan eguneroko bizitzako hainbat lan egiten ditut, adibidez: garbigailua jartzea, entsalada egitea, etab.”

Andoni Martín

● Prestakuntza eta Enplegua Laguntzarekin CIVIS

Zer egiten dugu?

CIVIS-ek enplegarritasuna hobetzearekin zuzenean lotutako gaitasun handiagoak sustatzen eta garatzen laguntzen du, lan mundura sartzeko aukerak areagotzeko.

Zer nabarmentzen dugu?



Enpresa laguntzaileak

ENPLEGU LAGUNDUAN



PRAKTIKETAN

dauden ikasleentzako enpresa laguntzaileak



“Niretzat lana gauza berriak ikastea eta lan esperientzia izatea da. Ekonomikoki independenteagoa izaten laguntzen dit”

Olatz Benítez

“Niretzat, BMn apalbetetzailer gisa egiten dudana oso atsegina eta polita da. Supermerkatu osoa birjartzea gustatzen zait, eta erostera datozen eta noraezean dauden pertsonen laguntzea”

Peio Barrenetxea



● Aisialdia

Zer egiten dugu?

Aisialdi Zerbitzuan, pertsonei beharrezkoak dituzten baliabideak eta laguntzak eskaintzen saiatzen gara, aisialdi indibidual eta partekaturako eskubidea gainerako komunitatearen baldintza berberetan jardun ahal izan ditzaten, gizarteratzearen eta pertsona orientazioaren printzipioak gidatuta.

Zer nabarmentzen dugu?

Adimen-degaitasuna
duten pertsonei

AISIALDI-BATZORDEA

JOLAS-PROGRAMA

Karta-sortaren txokoa
Asteburuetako kluba
Aste Santuko klubak
Uztaileko oporretako jarduerak
Abuztuko oporretako jarduerak

OPORRETAKO PROGRAMA

Aste Santua
Abuztua

AISIALDIA NEURRIRA

Pertsonei laguntzen diegu beren aisialdia neurritik kudea dezaten, ohiko eskaintzatik haratago, nahi duten pertsonekin eta aukeratzen duten egunean. Asteburuetako irteerak, urtebetetzeak, kontzertuak eta abar egiteko aukera eman da.

Urtean zehar, **81 partaidetza** egon dira programa honetan, iaz baino % 50 gehiago.

KIROL-PROGRAMAN

Areto-futbola
Golfa
Igeriketa
Mendi-ibilaldiak
Mendia
Gimnasia
Yoga Tenisa
Zumba
Emakume futbola
Betiko Neskak

PROGRAMA SOZIOKULTURA

Pintura-tailerra
Dantza
Abesbatza
Gorputzeko
adierazpena
Musidisk
Irakurketa Errazeko
Kluba

Urtean zehar, **197 pertsona** parte hartu dute jarduerak desberdinetan, zehazki **77 emakumek** eta **120 gizonek**.

Aurten **16 pertsona** berri sartu dira Aisialdi Zerbitzuaren hainbat jardueratan.

“2021ean hasi nintzen pinturan. Asko gustatzen zait eta lasaitu egiten nau gaizki edo aspertuta nagoenean. Asko gustatzen zait diamantezko koadroak margotzea”

Agurtzane Riego



“Txikitan ezagutu genuen elkar, eta berriro egin dugu topo Aisian, Gaude-n”

Chechu y Fernando

Boluntariotza

GAUDEn, boluntariotzan sinesten dugu aldaketarako eragile gisa.

Boluntarioak funtsezko zutabeak dira. Jarduera asko ez lirateke posible izango haiek gabe.

Aurten **53 parte-hartzailek** lagundu dute, honako hauetan:



“Zorte ikaragarria izan da zuek ezagutzea, eta opari handia zuekin partekatzea. Eskerrik asko nire eskua hartzeagatik, nire burua irekitzeagatik, eta ostegunero nire bihotza ukitzeagatik”

Teresa Galdiz

OPORRAK

AISSIALDIA
NEURRIRA

INGURUMENA



KIROLA

EGUNEKO
IRTEERAK

KULTURA—
EKINTZAK

Sarekideren Zuzendaritza
Batzordeko kide gara



BForoaren kide gara,
“BizkaiaGara”rena



“Paseoko arratsaldeek eta Gaude aisialdiko lagunekin izandako barreek esperientzia zoragarria kontatzen dute pertsona zoragarriekin”

Jaime Izquierdo



4 PROIEKTUAK

2025
MEMORIA


● Zahartze aktiboa - BIZIKI



Zer egiten dugu?

Bizikik adimen-desgaitasuna duten 50 urtetik gorako pertsoneri eta haien familiei laguntzen die bizitza betea izaten, zahartze aktibo eta osasungarriaren esparruan.

Zer nabarmentzen dugu?



Komunitate-jarduerak

2025KO TAILERRAK/JARDUERAK	KOKAPENA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Informatika	CEPA LEIOA - ERANDIO	2	0
Estimulazio kognitiboa	NAGUSI RKE (GETXO)	4	3
Boluntariotza animaliekin	APASOS BILBAO	5	1
Bizitza eta zahartze osasuntsua	NAGUSI PINUETA (LEIOA)	2	2
Zineadin	NAGUSI RKE (GETXO)	1	0
Kontaidazu argazki hau	NAGUSI RKE (GETXO)	1	0
Irteera kulturalak	GAUDE	4	3
Irteera kulturalak	CEPA LEIOA - ERANDIO	1	0

Adina: 54 - 75 urte



“Asko gustatzen zait Biziki, txakurrekin boluntariotza egin dezakedalako, asko maite baititut. Haiekin egotea, paseatzera ateratzea, orraztea...”

Mikel Urrutia



“Gustatzen zait Bizikirekin paseatzera ateratzea eta tailerren ondoren deskafeinatu bat hartzea”

Mari Mar Gavito

● Bizitza independentea

Adimen-desgaitasuna duten eta familiaren etxetik kanpo modu independentean bizi diren pertsonen laguntzen diegu, desioen, jomugen eta lehentasunen arabera. Bizimodu independentea dakarten eguneroko erabakiak hartzen laguntzen diegu (aurrekontu pertsonala kudeatzea, etxea garbitzea, eguneroko menua, etab.)



● Maitasunez Eginak

Maitasunez Eginak, "maitasunez egindako" xaboiak, Urdulizko Mendiondo Zentro Okupazionalan gauzatzen den proiektua da.

Tailer honetan, pertsonak xaboi egiteko artisaun-formarekin ohitzen dira, osagai naturalekin eta ingurumenarentzat kaltegarria den inolako osagairik gabe. Gune inklusiboak sortu nahi dira, inguruko ikastetxeetara joanda, tailer horietan lehen hezkuntzako ikasleak prestatzeko. Bertan, parte hartzen duten pertsona guztiek elkar ezagutuko dira, eta pertsonen arteko desberdintasunak gaindituko dira proiektu komun bat lortzeko lankidetzaren bidez.

● Sare Berdeak Ehuntzen proiektua

Donibane zentro okupazionalak 2.000 m² inguruko berdegunea du, **hiriko biodibertsitatea kontserbatzeko eta interpretatzeko lorategi** bihurtu duguna.

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak eta zentroko begiraleek kudeatzen dute gune hori, SEO BirdLife argitalpenaren gomendioei jarraituz: "*hiri-inguruneetan biodibertsitatea kontserbatzeko 100 neurriak*".



Proiektua **Donibanetik haratago hedatzen da eta ikastetxeekin, hirugarren sektoreko erakundeekin eta udalekin sare handi bat sortzea ahalbidetzen du.**

500 BISITATIK
GORA URTEAN

IKASTETXEETATIK LH ETA
DBHKO IKASLEAK ETORTZEN
DIRA BISITAN

ELKARLAN SARIA
EUSKO JAURLARITZA

Jardunbide
egokiak ikastetxeei
dagokienez.

Zer egiten dugu?

Lorategia inausketa
natural eta
birsortzailearen
irizpideekin
kontserbatzen.

Inguruko
flora
autoktonoa
zaindu eta
kontserbatu.

Sugandilentzako
arrokaia.

Tximeleten
oasia.

Inguruko hegaztiak eta
migratzaileak zaindu
eta katalogatzen.
Elikadura urteko
eskasia garaietan.

Intsektuen
hotela.

Urmael
bat
sortu.

Belar
aromatikoak
landu eta
zaindu.

Udaberrian
belarra
moztea
murriztu.

5 KONPROMISOAK

2025
MEMORIA

● Pertsonetikiko konpromisoa

PlanTEA

Aurrera goaz Gaude programan lagun egiten diegun pertsonen aniztasunarekiko konpromisoan, PlanTEAn parte hartuz. Plan hori *Plena Inclusión* España-k bultzatutako erakundea indartzeko plana da, eta Espekto Autistaren Nahasmendua (TEA) duten pertsonen eta haien familien ongizaterako kalitatezko laguntzak bermatzea du helburu.

● Berdintasunarekiko konpromisoa

Berdintasun-plana

Aurrera egiten jarraitzen dugu Elkarteen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planarekin.

Urtean zehar **50 jarduera** baino gehiago egin dira zentro guztietan, adimen-desgaitasuna duten pertsonen eta taldeko pertsonen zuzenduta eta haiek protagonizatuta, eta komunitateari irekita, Berdintasun Planaren esparruan.

● Euskararekiko konpromisoa

Euskalduntzeko Plana

GAUDE Euskalduntzeko Planarekin aurrera jarraitzen dugu (kartelak, komunikazioa, protokoloak, euskara batzordea, berbalagun, Euskera Zaintzaileak taldea...)

● Gizartearekiko konpromisoa



● Etorkizunarekiko konpromisua

2025 urtean GAUDE 2026-2029 Plan Estrategikoa egiten jarraitu dugu. Parte hartzeko prozesu bat garatu dugu, eta guztira 206 pertsonak parte hartu dugu (desgaitasuna duten pertsonak, senideak, Zuzendaritza Batzordeko kideak, profesionalak, boluntarioak eta GAUDEekin ohikoak diren pertsona eta erakunde laguntzaileak). Eragile horien guztien inplikazioari esker, lehentasunak identifikatu ditugu, hobetzeko aukerak aitortu ditugu eta etorkizuneko ikuspegi partekatua eraiki dugu.



6 2025AN...

2025
MEMORIA



Finlandiara joango gara,
inklusioari eta hiri-irisgarritasunari
buruz ikasteko



Donibaneko Zentro
Okupazionalako obrak hasi dira



Leioan 500 urte, **Itziar Unanuek**
irteerako pistoletazoan parte hartu du



Itsasoa Besarkatu Erronka
Alberto Llorente eta Enrique
Herreroren lehen etapa
koordinatu genuen



"Euskara Zantzaileak taldea" sortu zen, eta zentro
guztietako 30 pertsonak parte hartu zuten



Fútbol 7 Empresen Txapelketa



Getxoko **boluntarioaren XXXII. Saria**,
Egoitz Mendez

7 GURE ERAGINA

2025
MEMORIA

● Gure jardueraren inpaktu globala garapen jasangarrirako helburuen bidez (GJH)

2030 Agendak GJHak ditu nazioarteko eskalako adierazle gisa, eta, bertan, pertsona eta erakunde guztiok laguntza emateko aukera dugu. Hainbat arlo lantzen dituzten 17 helburu dira.

Elkartearen jarduera globalak, batik bat, GJH horiei laguntzen die, 2025ko memoria honetan erakutsi diren jarduera-eremuen bidez.



● Proiektuen eragin-ebaluazioa Zuazo Etxea

Carmen Gandarias Fundazioaren finantzaketari esker, "Casa Zuazo" Aldi Baterako Egonaldietarako Etxebizitzaren eraginaren ebaluazioa egiten jarraitzen dugu.

Prozesu horretan identifikatu dugu, 2023-2025 aldian, proiektu honek eragin berezia duela honako hauetan:

Senideei dagokienez:

- Ongizate emozional handiagoa
- Autoestimu handiagoa
- Familia, gizartea eta lana kontziliatzea sustatzea.
- Familia barruko harremanak hobetzea.
- Laguntza-sare egonkorra finkatzea

DATUAK

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **norberaren zaintzan** (norberarentzako aisialdia eta aisia, nagusiki).

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak inpaktua izan du **atsedenean**.

Senideen % 100ek adierazi duenez, egonaldiak **gizartearen eta familiaren oreka** errazten du.

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen dagokienez:

- Duintasun-zentzua hobetzea (nabaritutako errespetua eta bizitzako hainbat alderdiren gaineko kontrolaren pertzepzioa).
- Familiarengandik aparte bizitzeko aukerarekiko konfiantza handitzea.

DATUAK

Desgaitasuna duten pertsonen % 100ek uste du **errespetuz tratatua izan dela** Zuazo Etxean egotean.

Desgaitasuna duten pertsonen % 80k uste du Zuazo Etxean egon bitartean **hainbat egoeratan eragiteko ahalmena dutela**.

Administrazioari dagokionez:

- Kostua aurrezteko egoitza-egonaldi iraunkorren eskaera txikiagoagatik.

8 ALIANTZAK

2025
MEMORIA

145 erakunde kolaboratzaile baino gehiagoko sarea daukagu, eta horien artean geu nabarmentzen gara:





Avenida Amaia, 2 - 2G
48940 Leioa. Bizkaia
Tel.: 94 463 24 55
comunicacion@gaude.eus
www.gau.de.eus

